

# ETXEBARRIKO HAPO

Eranskina. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA.

AURKIBIDEA:

<b>A.</b>	<b>SARRERA .....</b>	<b>3</b>
<b>A.2</b>	<b>ETXEBARRIKO HAPO-REN AZALPEN OROKORRA ETA GARATZEKO BEHAR DEN DENBORAREN GAINEN AURREIKUSPENAK .....</b>	<b>6</b>
	A.2.1 ETXEBARRIKO HAPO-REN AZALPEN OROKORRA .....	6
	Irizpide eta helburuak .....	7
	Ereduaren deskribapena .....	9
	A.2.2 GARATZEKO BEHAR DEN DENBORAREN GAINEN AURREIKUSPENAK.....	10
<b>A.3</b>	<b>HIZKUNTZA-INPAKTUAREN INTENTSITATEAREN KALKULUA .....</b>	<b>11</b>
	A.3.2 ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENTSITATE-PUNTUAZIOA .....	23
<b>A.4</b>	<b>FUNTSEZKO ALDERDIEI BURUZKO AZTERKETA .....</b>	<b>24</b>
	A.4.2 IZAERARI, DIMENTSIOARI ETA LEKUKOTZEARI LOTUTAKO ALDERDIAK.....	24
<b>A.5</b>	<b>KONPENTSAZIO-NEURRIAK.....</b>	<b>40</b>
<b>A.6</b>	<b>NEURRI ZUZENTZAILEAK.....</b>	<b>41</b>

## A. SARRERA

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, “Toki-erakundeen eta udalen eskumenak euskararen erabilerari dagokionez” deritzon 7. artikulua 7. atalean, honakoa ezartzen du:

*“Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira.”*

Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak honakoa ezartzen du:

50. artikulua.– Ebaluatu behar diren planak eta proiektuak.

1.– Udalek behean zerrendatzen diren plan eta proiektuen hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin beharko dute, bai eta horien funtsezko aldaketak ere, baldin eta euskararen erabileran eragina izango badute:

a) Planak:

– Hiri-antolamenduko plan orokorrak

– ...

2.– Aurreko zerrendan aipatutakoez gain, arnasmuneetako euskararen erabileran eragina izan dezaketen plan eta proiektu guztiak ebaluatu beharko dira.

Arnasmuneen definizioa aipatutako dekreturen 4. artikuluan zehazten da:

4. artikulua.– Definizioak.

Dekretu honen ondorioetarako, hona hemen zenbait terminoren esanahia:

–...

–“Arnasmuneak»: eremu geografiko eta soziofuntzionalak zeinetan euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan.

Etxebarrian, euskararen ezagutzari dagokionez, EUSTATen datuen arabera, 2016. urteko egoera (datuak ditugun azken urtea) hau zen:

<b>Euskal AEko biztanleria per lurralde eremua, unitateak, euskara-maila eta aldia</b>	
	2016
Etxebarria	
Portzentaia	
-Euskaldunak	87,01
-Ia-euskaldunak	5,82
-Erdaldunak	7,16

Definizioak:

- Euskaldunak: euskara ondo ulertzen eta hitz egiten duten pertsonak.
- Ia-euskaldunak: euskara ondo edo zailtasunekin ulertzen duten eta zailtasunez hitz egiten duten pertsonak.
- Erdaldunak: euskara ulertzen eta hitz egiten ez duten pertsonak.

Laburbilduz, Etxebarria "arnasgune" bat da; izan ere, euskaraz dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa da, euskara gizarte-harremanetan erabilera normal eta orokorreko hizkuntza da; beraz, 179/2019 Dekretuan xedatutakoaren arabera, hizkuntza-inpaktuaren ebaluazioa egin behar da.

2020an Etxebarriko Udalak, Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aurrerakina onartzeko prozesuari ekin dio, prozesu parte-hartzaile baten bitartez.

Kontutan izanda HAPOan aurrikusitakoak herrian eta bertako errealitate linguistikoan izan dezakeen balizko eragina, Eragin Linguistikoaren Ebaluzio (ELE) txosten hau idatzi da, eragin posible horiek identifikatzeko eta ebaluatzeko, eta eraginak kaltegarriak balira, hauek murrizteko neurri zuzentzaileak proposatzeko.

## B HIZKUNTZA-INPAKTUAREN AZTERLANA

Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren Xedapen Gehigarriaren arabera:

...

*Bigarrena.– Beharrezkoa baldin bada 179/2019 Dekretuaren 54. artikuluan aurreikusitako «**hizkuntza-inpaktuaren azterlana**» egitea, **planaren** edo arau subsidiarioen **hasierako onespenaren proiektuarekin batera prestatuko da**, eta azterlanaren ondorioak proiektu horretan txertatuko dira; gainera, **jendaurrean jartzeko eta kontsultak egiteko izapideak batera** egingo zaizkio proiektuaren hasierako onespenari eta azterlan horri.*

...

Era berean, azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuak, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoak, honako hau ezartzen du:

*55. artikulua.– Informazioa jendaurrean jartzea, interesdunei kontsulta egitea eta entzunaldia.*

*1.– Plana edo proiektua onartzeko funtsezko prozedura jendaurrean jartzen den aldi berean, hizkuntza-inpaktuaren azterlana jendaurrean jartzeko izapidea ere egingo da.*

Horregatik, Hasierako Onespenarekin batera eta jendaurrean jarri aurretik, hizkuntzaren gaineko eraginaren azterlan hau idatzi da.

Horretarako, UEMAK Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarekin batera garatutako metodologia eta tresna informatikoak erabili dira, 179/2019 Dekretuaren Hirugarren Xedapen Gehigarrian ezarritakoaren arabera. Gainera, azterketa 179/2019 Dekretuaren 54. artikuluan ezarritakoaren arabera egituratzen da:

*54. artikulua.– Hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea.*

*Udal-zerbitzu teknikoek egingo dute hizkuntza-inpaktuaren azterlana, zeinak alderdi hauek, gutxienez, aztertuko baititu:*

*a) Planaren edo proiektuaren azalpen orokorra eta garatzeko behar den denboraren gaineko aurreikuspenak.*

*b) Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatearen kalkulua. Inpaktuaren intentsitatea kalkulatzeko, aldagai hauek hartuko dira kontuan:*

*– Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.*

*– Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-gaitasuna.*

*– Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-erabilera.*

*– Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.*

*– Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.*

*– Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.*

*c) Funtsezko alderdiei buruzko azterketa. Honako eremu hauek kontuan hartu behar dira:*

*– Plan edo proiektu motaren ezaugarriei buruzkoak.*

*– Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.*

- *Kokapenari buruzkoak.*
- *Planteatu diren hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.*
- d) *Konpentsazio-neurriak.*
- e) *Neurri zuzentzaileak.*

## **A.2 ETXEBARRIKO HAPO-REN AZALPEN OROKORRA ETA GARATZEKO BEHAR DEN DENBORAREN GAINEKO AURREIKUSPENAK**

### **A.2.1 ETXEBARRIKO HAPO-REN AZALPEN OROKORRA**

HAPO idatzi da indarrean dauden Arau Subsidiarioak (AS) berrikusteko eta horietan planteatutako hirigintza-antolamenduko eredia egokitzeko behararen ondorioz.

Bere xedea udal lurralde osoaren lotura zehatzak ezartzea da bere helburu berezi ezberdinekiko (lurzoruaren erabilerak), udalerrriaren funtzionamendurako beharrezkoak diren ekipamendu eta zerbitzuak zehatzuz eta lurzoruaren jabeen eskubideak funtsean ukituz.

Erregelamenduzko arau juridiko izaera du eta udalerrriaren antolamendua integrala suposatzen du:

1. Hiri-lurzoruan, bere antolamendua osatuz lurzoruen eta eraikuntzen erabileraren eta ekintza sistemen antolaketa zehatzaren bitartez.
2. Lurzoru urbanizagarrian, gero era zehatzean garapeneko plangintzak definituko dituen erabilera orokor eta intentsitate maila batzuk ezarriz.
3. Lurzoru urbanizaezinean, hau hirigintza garapenetik gordez eta lurraldearen eta paisaiaren babes neurriak ezarriz.

HAPOk hainbat fase ditu: Aurre Aurrerakina edo Informazio-fasea, Aurrerakina, Hasierako Onarpena, Behin-behineko Onarpena eta Behin Betiko Onarpena. Fase bakoitzean lan-eskala desberdina da, eta, helburu nagusia aintzat hartuta, fase bakoitzak helburu bat du.

Etxebarriko HAPO une honetan Hasierako Onarpen-fasean dago. Aurrerakineko iradokizunak jaso ondoren, fase honetatik aurrera eta behin betiko onartu arte, Planak xehetasunez eta sakonki jorratzen ditu hainbat gai, aurrez Aurrerakin-fasean ezarritako jarraibide orokorrak kontuan hartuta. Etxebarriko errealitateari dagokionez, etorkizuneko antolamendua zehaztasunez lantzako unea da. Hala, fase honetan lehen zirriborro osoa marraztu eta idazten da, antolamendu-eredua eta araudia jasoko dituenak. Edonola ere, jendaurreko erakustaldi-epean alegazioak jasotzeko epea irekiko da, eta, aldez aurretik zein ondoren, HAPOrekin zerikusia duten gaiei buruzko txostena eskatuko zaie hainbat administrazio sektoriali. Beraz, aldatu eta egokitu ahal izango den dokumentua da.

## IRIZPIDE ETA HELBURUAK

### 1. Antolaketarako irizpideak

#### Orokorrak

HAPOk irizpide orientatzaile bezala bereganatu ditu ondoko hauek: garapen eramangarria, interes publikoaren nagusitasuna, hirigintza plangintzaren eskumena, hirigintza antolamenduaren koherentzia eta herritarren parte-hartzea.

#### Kuantitatiboak

Irizpide bezala proposatzen da Plan Orokor berriaren etxebizitza eskaintza 40-60 unitate tarte baten ezartzea. Tarte hau doitu egingo da planaren antolaketa xehatuko etorkizuneko faseetan.

Planaren erredaktore taldeak uste du garapen ekonomikoa, datozen urteetan eta Etxebarriarentzat, tradiziozko hiru sektoreen (lehen sektorea, industria eta zerbitzuak) arteko oreka baten oinarritu behar dela.

#### Kualitatiboak

Lurraldeari dagokionez:

- Indarrean dauden Arau Subsidiarioak arloko araudira egokitzea.
- Lurraldearen ezaugarri naturalak nabarmendu.
- Landa-eremuetako eraikinak eta biztanleria errekuperatzea erraztea.
- Lurzoru urbanizaezinean dauden jarduera toleratuen erregularizazioa erraztea.
- Sukarrieta udalerrri-mugetan dauden gunek antolatu.
- Mugikortasun alternatiboa erraztea.
- Lurzoru urbanizaezineko zenbait ikuspegi arautzea (eraikin osagarriak, itxierak...).

Hirigune nagusiari dagokionez, funtsean etxebizitza eta ekipamendu erabilerak arautzea proposatzen da.

Eta, orokorrean:

- Eraikuntzak inguruan dauden era antzekoak izatea.
- Merkataritza tamaina txiki edo ertainekoa izatea.
- Hirigunea jarduera ardatz bezala leheneratu.
- Katalogoan babesteko elementuen artean, eraikinez aparteko beste elementu batzuk ere sartzea.
- Azalerako aparkaleku kopurua handitu.

### 2. Antolamenduaren helburuak

#### Plangintzako helburu orokorrak

- Ingurumen naturala lurraldearen elementu egituratzaile bezala hartzea.
- Behar bezala egitaratua eta ingurumen naturala eta hirikoaren artean orekatua den lurralde-multzo bat eratzea.
- Gaur egungo kokalekuen antolaketa, indarreko Arau Subsidiarioetan aurreikusten diren hiri-garapenak ez bezala, ondoko premisetan oinarritua:
  - Hiri-garapenak gaur egungo hiriaren ehun barruan egiteari lehentasuna eman, erremate, osagarri, akabera eta abar behar duten bere aldeetan jardunez batez ere.
  - Hiri-kalitatea, bai formari dagokionez, bai funtzioari.
  - Hirigunean gaur egun dauden dentsitateen antzekoekin lan egiteko suposatzen duen hiriaren jarraitasuna eta eraikitako ehunaren trinkotasuna.
  - Lurzoruaren kontsumoa arrazionalizatu.
  - Hiri-garapenaren mugaketa.
  - Orografia errespetatu, lur-erazketa handiak eta gaur egungo topografia erabat aldatzea suposatzen duten ekimenak saihestuz
- Etxebarria bezalako herri batentzat egokiak diren ekipamendu eta gunek libreak aurreikustea.
- Jarduera ekonomikoetarako lurzorua erregularizatzea.
- Bide sare orokorra eta kokapen nagusiaren konektibitatea hobetu.
- Mugikortasun alternatibo bat osatzea.
- Etxebizitza arloan uste diren beharrei erantzuna eman.

- Kultura intereseko ondasun eta elementuak gorde, eta helburu hori lortzeko aproposak diren neurriak zehaztu.
- Hiri-zerbitzuen arloan dauden beharrei erantzuna eman (ura, saneamendua energia elektrikoa, gasa, telekomunikazioak, hondakinen bilketa, eta abar).

Helburu xehatuak hirigune eta lurraldeari dagokionez

- Erbera ingurua: lotura bide-ardatz nagusiarekin, Elgoibarrerako ibilgailuentzako lotura berria, aparkaleku berriak sortzea, eliza eta pilotalekuko atzeko aldea zabaltzea, porrot egindako sustapenak berrabiarazi eta errekueratu.
- Txoribenta ingurua: finkatu eta antolatu Markinarekin koordinatuz.
- Altzaa ingurua: antolatu Markinarekin koordinatuz.
- Lurzoru urbanizaezina orokorrean: arloko araudi eta indarreko legedira egokitu.
- Kultura-ondarea: inbentario bat egin katalogatutako eta inbentariatutako elementuak jasoz eta beraientzat babespen araubide bat ezarriz.



## EREDUAREN DESKRIBAPENA

**1. Antolamendua egituratuko duten sistema orokorrak**

Bide- eta azpiegitura-sareei dagokionez, ez da aurreikusten aldaketa nabarmenik, , ohiko mantentze eta hobetze lanez gainera, hirigunea zeharkatzen duten BI-2636, BI-3850 eta BI-4404 errepedearen tartea kenduta baina bai planteatzen dela zeharbide alternatiboen aukera, bai mendebaldean jarduera ekonomikoetarako guneak inguratuz, bai hirigunearen hegoaldean, lurzoru urbanizagarria zeharkatuz eta, ELE honen ondorioz, BI-2636 errepedearen paralelo (oinezkoentzako bidea).

Ekipamenduei dagokionez, ez da herri-ekipamenduko sistema orokor berririk aurreikusten, Arau Subsidiaroen aldaketa bitartez aurreikusten den hezkuntzakoa salbu, uste baita daudenen hobetze edo handitzearen kalterik gabe, herria nahiko hornitua dagoela zentzu honetan.

Espazio libreei eta berdeguneei dagokionez, ASetan aurreikusitako sistema orokorrak mantendu dira eta 18.550 m<sup>2</sup> berri aurreikusten dira, hirigunean banatuta.

**2. Ingurune fisikoa eta ondarea babestea**

Ingurune fisikoaren babestea Plan Orokorrean lurralde plangintza eta arloko arauditik horri buruz datozen zehaztapenak integratuz egin da.

Ondarearen babesa katalogo baten bidez egin da. Bertan arkeologi, arkitektura eta ingurumen ikuspegitik nabarmenen diren elementuak jaso eta sailkatzen dira, hirigintza-araudian dagokion atalean bakoitzari proposen zaion araubidea esleitzeko.

**3. Bizitegi-asetamenduak**

Hiri-lurzoruan eta lurzoru urbanizagarrian Erberan dagoen hirigunea mantentzearen alde egiten da eta neurrizko hazkunde bat planteatu mugarteetan, tipologi anitz eran. Hirigunearen iparraldean tamaina txikiko jarduketan alde egiten da, ingurura egokitutako bizitza bakarreko tipologian, eliza eta pilotalekuko atzeko aldetik igoten diren bide publikoetan oinarrituz. Hirigunearen hegoaldean bloke kolektiboko eta adosatu-bizitza biko tipologi mistoko jarduketak planteatzen dira.

Lurzoru urbanizaezinari dagokionez, hautatzen da ere dauden baserriak zenbait etxebizitzetan banatzearen alde (lau arte), beti ere irisgarritasun eta iraunkortasun baldintza batzuk betetzen badira.

**4. Jarduera ekonomikoetarako eta tertziarioetarako asentamenduak**

Ez da aldaketa handirik planteatzen indarrean dauden AS.en ereduarekiko. Zentzu honetan, Galartza eta Altzaa poligonoak mantentzen dira. Plan Orokorrean gai honi buruz dauden nobedade bakarra hauek dira: epe luzerako erreserba bezala sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarri bat mugatzen da Gernika-Markina eskualdeko LZPeko mugaketa errespetatuz eta azalerako aparkaleku bat aurreikusuten da Nemark gunean.

**5. Lurzoru urbanizaezinaren antolamendua.**

Lurzoru urbanizaezinentzat ezarritako antolaketa kategoriek funtsean Nekazaritza Basogintzarako Lurralde Plan Sektorialean datorren antolaketarekin datoz bat.

**6. Estandarrak betetzea**

Hautatutako konponbideak 2/2006 Lurzoruaren Legeak eta hirigintza-estandarrei buruzko uztailaren 3ko 123/2012 Dekretuak ezarritako estandarrak betetzen ditu

HAPOk proposatzen diren eremuen azken antolamendua edo diseinua zehazten ez badu ere, legediak gutxieneko batzuk aurreikusten eta bermatzen ditu eremuen funtzionaltasunerako eta kalitaterako, irizpide eta estandarren bidez. Hala, adibidez, bizitegi-eremu bati buruz ari bagara ere, legediak espazio libreetarako (egoteko guneak, haurren jolasak, parkeak) ezarri beharko den gutxieneko azalera kuantifikatzen du, aurreikusten diren bizitegi-erabilerarako aurreikusten diren eraikitako m<sup>2</sup>-en arabera eta ondorioz; baita beste zuzkidura edo ekipamenduetarako ere (adibidez, osasun-zentroak, ikastetxeak, aparkalekua, zuhaitzak, etab.).

## A.2.2 GARATZEKO BEHAR DEN DENBORAREN GAINEN AURREIKUSPENAK

Denboraren gaineko aurreikuspenei dagokienez, 8 urteko indarraldia aurreikusten da (Behin Betiko Onespenetik hasita).

Uste da hiri-lurzoru finkatu gabea nahiko dela Planaren indarraldi ea osoan sortu daitekeen eskaerari aurre egiteko. Beraz, ez da beharrezkotzat jo lurzoru urbanizagarriko sektoreak mugatzea, baizik eta sektorizatu gabeko lurzoru hiru poltsa mugatzea hautatu da, epe luzerako erreserba bat izan dadin, bada ezpada, uste den bezala Planaren indarraldia bere iraunaldi teorikoa baino gehiago luzatzen bada.

Era horretan, proposatzen den sekuentziarioa ondoko hau da:

1. Lehenetsuna AD-06 (Bizkarra sektorea izan zena) zuzkidura jarduketari ematen zaio, zenbait arrazoi direla eta. Lehenik eta behin, bere garaian bukatu gabe geratu zen bere egikaritzea eta orain berdiseinatu egin da udalak bultzatuta, eta horrek bere bideragarritasuna eta interes publikoekiko lotura bermatzen duelako. Bigarrenik, une honetan gizakiak eraldatuta baino jarduera barik, begi bistan dauden egiturekin, dagoen lur-zati bat berreskuratzen duelako, eta beraz, beste izaera batzuetako lurzoruaren kontsumoa saihesten duelako. Hirugarrenik, iraunkorra eta udalerriko gazteen beharrei egokitutako etxebizitza eskaintzeko balio izango duelako. Laugarrenik, egituratze lan handia egingo duelako hiriguneko hegoaldean, ibilgailuentzako lotura berri bat irekiz bere mendebaldeko zubiaren bitartez.
2. Bigarren egongo litzateke AI-01 (hirigunearen hegoaldean) jarduketa integratua. Bere zergatia, garrantzitsua bada ere, gunearen bukaera lortzera, ez da lehenaren mailara heltzen. Hala ere, nola ateratzen den higiezin-produktua ez denez, ez kopuruan, ez tipologian (etxebizitza kolektiboa aurreikusten da bertan), bateraezin aurrekoarekin, bere egikaritzak ez du halaber beharrez itxaron beharrik AD-06 egikaritu arte, beti ere, bere bideragarritasuna eta bateragarritasuna bermatzen bada dagokion Hiritatzeko Jarduketa Programan (HJP).
3. Hirigunearen iparraldean planteatutako zuzkidura jarduketak (AD-01, AD-05 arte), tamaina txikikoa eta sustapen pribatuaren aukerara baldintzatua egonik, ez du garrantzirik programazioa egiterako orduan. Beraz, Planaren indarraldiaren edozein unetan egin daiteke.
4. Sektorizatu gabeko lurzoru urbanizagarriari dagokionez (NS-01, NS-02 eta NS-03), epe luzerako erreserbako lurzoru gisa geratuko dira, eta horien garapenak, justifikatutako arrazoirik ezean, mugatutako gainerako eremuak gauzatu arte itxaron beharko du (Planaren **bigarren lau urtekoa**).

## A.3 HIZKUNTZA-INPAKTUAREN INTENTSITATEAREN KALKULUA

Hizkuntza-inpaktuaren intentsitatea Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak garatutako aplikatiboaren ELE Galdetegiaren bidez kalkulatu da. Galdetegi horrek eragin linguistikoa identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du, modu zehatzago batean, eta hizkuntzaren ikuspegitik proiektuak edo jarduerak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten lagunduko du.

Hizkuntzari estu lotutako sei aldagairen inguruan galdetzen da horretarako prestatuta dagoen aplikazioan:

- Bizitza sozialaren eta kulturalaren gaineko inpaktua.
- Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-gaitasuna.
- Biztanleen edo bisitarien hizkuntza-erabilera.
- Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko komunikazioa.
- Eraginpeko eremuko hizkuntza-paisaia.
- Jardueraren edo zerbitzuaren eremuko hizkuntza-eskaintza.

### A.3.1. TESTUINGURUA

**EZAGUTZA DATUAK, LEHEN HIZKUNTZA ETA ETXEKO HIZKUNTZA EZAGUTZA:**

Euskal AEko biztanleria per lurralde eremua, unitateak, euskara-maila eta aldia								
	1981	1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Etxebarria								
Portzentaia								
-Euskaldunak	95,14	96,21	93,65	94,41	94,74	89,07	87,57	87,01
-Ia-euskaldunak	2,72	2,48	5,57	4,94	4,36	6,78	6,56	5,82
-Erdaldunak	2,15	1,31	0,78	0,65	0,90	4,15	5,87	7,16

**ETXEKO HIZKUNTZA:**

	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Etxebarria						
Euskara						
Guztira	670	653	734	509	548	522
Gaztelania						
Guztira	42	34	41	122	120	101
Biak						
Guztira	71	101	22	179	61	41
Beste bat						
Guztira	3	0	1	4	8	19

**LEHEN HIZKUNTZA:**

			1986	1991	1996	2001	2006	2011	2016
Etxebarria	Euskara	Guztira	95,45	94,91	92,89	94,36	85,14	82,77	81,84
	Gaztelania	Guztira	2,40	4,07	4,44	4,26	8,72	9,09	9,37
	Biak	Guztira	1,01	0,76	1,40	0,50	1,97	4,48	4,54
	Beste bat	Guztira	1,14	0,25	1,27	0,88	4,18	3,66	4,25

## **EUSKARAREN INGURUKO EGITURAKETA**

Etxebarriko Udalak 2018-2022 urteetarako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana du, onartuta eta indarrean. Horrezaz gainera, Euskara Zerbitzua eta Euskara teknikaria ere baditu.

Euskara Batzordea ere badago, hizkuntzaren normalizazioarekin zerikusia duten gaiak koordinatzen dituena. 2018az geroztik Euskaraldia antolatzekeo ardura ere badu.

Duela hiru urte hasita mintzapraktika saioak egiten dira, lehenengo bertako batzordeak sustatuta, gero Markinako Aek-rekin elkarlanean Berbalagun egitasmoaren barruan.

Etxebarian erroldatutako herritarren euskara eskolak diruz laguntzeko udal-araua du Udalak. Atzeritik etorritako herritar berrientzat ere AISA eskolak ematen ditu, Aek-k lagunduta, doan.

Bestalde, Irakurleen Txokoak urteak daramatza herritarren artean euskarazko irakurzaletasuna sustatzen.

## **HEZKUNTZA**

Ikastetxe bakarra dago, D ereduakoa: Manuela Zubizarreta HLHI ikastetxea

Honez gain, haurreskola ere badago: Etxebarriko haurreskola

### **A.3.2. EBALUAZIO PROZESUA. METODOLOGIA.**

UEMAk Eusko Jaurlearitzako Hizkuntza Politika Sailarekin batera garatutako ELE tresna da ebaluazio hau egiteko jarraitu eta erabili den metodologia.

#### **1/ Aztertuko den tokiaren testuingurua eta egitasmoa aztertu.**

Eragin linguistikoaren ebaluazioarekin hasi aurretik, Etxebarria herriaren testuingurua aztertu da,

beronen datu demografiko, soziolinguistiko eta sozioekonomikoak aztertuz. Ondoren, HAPOaren aurrerakinaren (egitasmoaren) alderdi garrantzitsuenak ere aztertu dira.

#### **2/ Proiektuak hizkuntza txostena behar duen zehazteko galdetegi laburra erantzun.**

Edozein egitasmo edo proiektuk udalerrri bateko egoera soziolinguistikoan eragingo duen edo ez ondorioztatzekeo balio duen galdetegia da. Galdetegia sinplea da, galderei BAI edo EZ erantzuna eskatzen duena.

Aldaketa lau faktore nagusik eragingo dute: biztanle kopurua ugartzeak edo bisitari/erabiltzaile/langile kopurua ugartzeak, hizkuntz apolitika aldatzeak edota tokiko harreman sareak aldatzeak.

#### **3/ Proiektuaren bilakaera indizea kalkulatu.**

Biztanleria eta bisitarien kopurua aldatukoko duelako bete da urrats hau. Horretarako Biztanleriaren Proiektzio Indizea, Euskararen Proiektzio Indizea eta tokiaren Hauskortasun Indizea kalkulatu dira.

#### **4/ Eragin linguistikoaren galdetegi zehatza bete eta indizea kalkulatu.**

Galdetegi honek eragin linguistikoa identifikatzeko eta ebaluatzeko balio du, modu zehatzago batean, eta hizkuntzaren ikuspegitik proiektuak edo jarduerak izan ditzakeen gabeziak aurreikusten laguntzen du.

Galdetegi honen helburua eragin linguistikoaren nolakotasuna aztertzea eta eragina jasan dezaketen alderdiak identifikatzea da.

Hizkuntzari estu lotutako aldagaien inguruan galdetu da:

- Komunitatearen kutur eta gizarte bizitzan
- Biztanleriaren/bisitarien euskararen ezagutzan
- Biztanleen/bisitarien euskararen erabileran
- Jardueren/zerbitzuen komunikazioan
- Eragin eremuaren hizkuntza-paisaian
- Jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan – erabileran

**5/ Funtsezko alderdiei buruzko galdetegi bete eta hobetzeko neurriak identifikatu.**

Edozein proiektu edota jarduerak jaso beharreko funtsezko alderdiak biltzen dituen galdetegi da.

Galdetegiaren bidez, ekimenean zein praktika barne hartu ez diren identifikatu da. Horri esker, neurrien zerrenda bat egin da, txostenean kontuan hartu dena.

Funtsezko alderdiak bost ataletan banatuta daude:

- Proiektuaren/jardueraren izaerari lotutakoak: etxebizitzaren tipologia, espazio publikoen funtzio eta erabilera mota, ekipamenduen kudeaketa eredua eta gararen sozioekonomiko

zein soziokulturalaren eredua euskararen garapen positiborako egokiak al diren aztertzen du funtsezko alderdi honek.

- Proiektuaren/jardueraren dimentsioari (espazioan eta denboran) lotutakoak: proiektuak ekarriko duen hazkundera, berau garatzeko beharko den denbora eta okupatuko duen espazioa hizkuntzaren garapen positiborako egokiak al diren jasotzen du.

- Proiektuaren/jardueraren lekukotzeari lotutakoak: proiektua edo jarduera garatuko den lekua euskararen garapen positiborako egokia al den aztertzen da alderdi honetan.

- Proiektua/jarduera garatzeko ezarritako hizkuntza-irizpideei lotutakoak:

proiektuari/jarduerari mota desberdinetako (ahozkoa, idatzizkoak, kontrataziotarako...) hizkuntza irizpideak ezarri al diren jasotzen da.

- Proiektuaren/jardueraren kaltea konpentsatzeko proiektu/jarduera osagarriak (neurri aringarriak): garatuko den proiektuaz gain, horrek sortuko duen kaltea murrizteko bere baitan bestelako jarduera edo proiektu osagarriak aurreikusitako al diren aztertzen da.

Izaera, dimentsioa eta lekukotzeari lotutako alderdiak bost jarduera nagusitan banatuta daude:

1. Etxebizitza
2. Jarduera ekonomikoa, enplegua
3. Ekipamenduak
4. Espazio libreak
5. Jarduera soziokulturala.

Hizkuntza irizpideei eta jarduera osagarri/aringarriei lotutako alderdiak orokorreran galdetu dira, jarduera edozein dela ere.

**6/ Neurri zuzentzaileak proposatu.**

Behin diagnostikoa eta aurreikuspena eginda, zein funtsezko alderdiei buruzko azterketa eginda, azaldu diren eragin posibleei zein neurri zuzentzaile proposatzen zaien azaltzeko puntua da.

Ebaluazio prozesuak hiru fase izan ditu:

- 1- Aurrelanak
- 2- Ebaluazio taldea
- 3- Txostena

**1- AURRELANAK**

Lehenengo fasean honakoak izan dira zereginak: proiektuaren inguruko eta Etxebarriko informazioa eskuratzea. Oinarritzko datu bilketa, zeharkako iturrietatik datu bilketa, dokumentuak, estatistikak.

Iturri hauek erabili dira: Eustat, UEMA (Azterketa Sozioekonomikoa eta Soziolinguistikoa) eta Etxebarriko Udaleko datuak.

Datu horietatik erauzitakoekin osatu da Hauskortasun indizea, Euskararen Proiekzio indizea eta Eragin Linguistikoaren indizea.

Aldez aurretik aipatutako indizeen emaitzak eta datuak kontuan hartuta, Balorazio Batzordea arduratu da Eragin Linguistikoaren Ebaluazio galdetegiak bete eta puntuazioa ezartzeaz.

## 2- EBALUAZIO TALDEA

Aldez aurretik aipatutako indizeen emaitzak eta datuak kontuan hartuta, Balorazio Batzordea arduratu da Eragin Linguistikoaren Ebaluazio galdetegiak bete eta puntuazioa ezartzeaz.

Balorazio Batzordea honako pertsonak osatu dute:

- Jesus Iriondo Lejardi, Etxebarriko Udaleko alkatea.
- Idoia Odriozola Lejardi, Etxebarriko Udaleko euskara zinegotzia.
- Iraide Baskaran.Uranga, Etxebarriko Udaleko zinegotzia
- Xeber Guenaga Loiola, industria arloko aditua.
- Markel Bollar Arrate, abokatu hirigilea.
- Urtzi Uriarte Pujana, euskara zerbitzuko teknikaria

1. bilera	
Parte-hartzaileak	Balorazio Batzordea
Egitekoak	Galdetegi laburra bete
	Prozedura zehaztu

2. bilera	
Parte-hartzaileak	Balorazio Batzordea
Egitekoak	Datuak aztertu
	Diagnostikoa osatu

3. bilera	
Parte-hartzaileak	Balorazio Batzordea
Egitekoak	Eragina aztertu
	Neurri zuzentzaileak proposatu

## 3- TXOSTENA

Txostenaren erredakzioa HIRITEK arkitektura eta hirigintza estudioko talde teknikoak egin du eta Balorazio Batzordearekin partekatu da.

### A.3.3. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

Etxebizitza libreen kasuan, Etxebarrian eraikitzea aurreikusita dagoen etxebizitza kopuruak, nahiz eta neurrizkoa izan, biztanleriaren hazkundea ekarriko luke eta, beraz, eragina izango luke tokiko biztanleriaren kopuruan. Ondorioz, arrazoizkoa da prebentzio ikuspegitik izan dezakeen eragina neurtzea.

**GALDETEGI LABURRA**

GALDERA	BAI/EZ	AZALPENA
1. Planak/egitasmoak izango du eraginik tokiko biztanleria kopuruan? (etxebizitzak eraikiko direlako, lanpostuak sortuko delako...)	BAI	Etxebizitzak eraikiko dira
2. Planak/egitasmoak izango al du eragin nabarmenik tokiko bisitari kopuruan? (aisialdi guneak eraikiko delako, zerbitzuak sortuko direlako, lanpostuak ugarituko direlako...)	EZ	
3. Planak/egitasmoak egoera soziolingistikoan beste era batera eragin nabarmenik izango du?	EZ	

**BILAKAERA INDIZEA (BI)**

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztartekatik sortzen da indize hau. Herri batek zenbat eta hauskortasun indize altuagoa izan, esan nahi du orduan eta gaitasun gutxiago izango duela euskararen ezagutzan izango den inpaktuari aurre egiteko. Bi indezeren batuketaren emaitza da: Hauskortasun Indizea eta Euskararen Proiekzio Indizea.

**HAUSKORTASUN INDIZEA (HI)**

Euskararen ezagutzaren bilakaera eta hauskortasun indizearen arteko uztartekatik sortzen da indize hau. Herri batek zenbat eta hauskortasun indize altuagoa izan, esan nahi du orduan eta gaitasun gutxiago izango duela euskararen ezagutzaren inpaktuari aurre egiteko; horregatik, euskararen ezagutzaren proiektioaren indizeari ez zaio punturik gehituko. Aitzitik, hauskortasun indizea txikia denean, inpaktuari aurre egiteko gaitasun handiagoa izango du (euskararen inguruko egitura baduelako, herri handi samarra delako, euskaldunen kopurua ez delako horren altua..).

Etxebarriari dagozkion datuen arabera, Hauskortasun indizea **HI= 12** da, hau da, hauskortasun oso handiko gunea da.

**EUSKARAREN PROIEKZIO INDIZEA**

Etxebarrian datozen urteetan 48 etxebizitza egitea aurreikusten da, eraikin berri eta hasita egonik amaituko direnen artean. Azken urteetako hazkundeari erreparatuta (14,5 biztanle urteko), eta hazkundearen eritimoa mantenduko dela iritzita, HAPOak hartuko dituen urteetan guztira 116 biztanle berri etortea aurreikusten da, 2,42 biztanle etxebizitza bakoitzera.

Euskararen Proiekzio Indizea					
Biztanleen kopurua gaur egun		683			
Euskaldunak gaur egun kopurutan		594			
Euskaldunak gaur egun %		87,01 %			
Biztanle/bisitari berrien kopurua		116			
<b>BIZTANLE/BISITARI BERRIEN JATORRIA PORTZENTAJETAN</b>		<b>KOPURUTAN</b>			
Araba		0,27 %			0
Bizkaia		71,84 %			83
Gipuzkoa		14,83 %			17
Estatuko gainontzeko lurraldeak		2,59 %			3
Atzerrikoak		10,48 %			12
DENETARA		100 %			
<b>EUSKARAREN EZAGUTZA JATORRIAREN ARABERA</b>					
	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Estatuko gainontzeko lurraldeak	Atzerrikoak
Euskaldunak %	28,54 %	36,61 %	57,37 %	5,00 %	1,00 %
Besteak %	71,46 %	63,39 %	42,63 %	95,00 %	99,00 %
Euskaldunak	0	31	10	0	0
Besteak	0	53	7	3	12
<b>BIZTANLE/BISITARI BERRIEN KOPURUA EZAGUTZAREN ARABERA</b>					
Biztanle/Bisitari berrien kopurua	Etorriko diren erdaldunak	Etorriko diren euskaldunak			
116	75	41			
<b>EUSKARA EZAGUTZA TASAK (ORAINGOAK ETA GEROKOAK) ETA KONPARAKETA</b>					
Biztanle/bisitari berriak + ohikoak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak + berriak	Biztanle/bisitari euskaldun ohikoak +berriak %	Euskaldunen % gaur egun	EPI%	EPI
799	635	79,44 %	87,01 %	-7,57 %	-7,57

**ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA**

Datu hauek guztiak aintzat hartuta:

		Oharra
Guztira	683	
Euskaldunak - Guztira%	87,01	
Ama-hizkuntza euskara - Guztira%	81,84	
Etxean erabiltzen den hizkuntza - Guztira%	77,91	
Euskara Zerbitzua	BAI	
ESEP	BAI	
Faktorea biztanle kopurua	5,00	
Faktorea Euskaldunak	5,00	
Faktorea Lehen hizkuntza	6,00	
Faktorea Etxeko hizkuntza	5,00	
Faktorea Euskararen inguruko egituraketa	0,00	
Hauskortasun indizea	12,00	
Hiren eraginaren balioa	0,00	
Euskararen proiektzio indizea	-7,57	
Bilakaera indizea	-7,57	

<b>TXOSTENA EGIN BEHARRA - IZAERA</b>	<b>HIZKUNTZA INPAKTUKO AZTERLANA BAI</b>
---------------------------------------	--

Beraz, Bilakaera Indizearen arabera (BI= -7,57), eta Etxebarriko izaera soziolinguistikoari erreparatuta, etxebizitza hauek eraikitzearen eragina kaltegarria izango litzateke (larria) euskararentzat.

IZAERA	ERAGINA	BALIOA GUZTIRA
Onuragarriak	Erabat positiboa	10<
	Positiboa	3<x<9
	Nahiko positiboa	0<x<2
Neutroa	Ez du eraginik	0
Kaltegarriak	Garrantzia gutxikoa	0<x<-1
	Moderatua	-2<x<-6
	Larria	-7<x<-9
	Oso larria	-10<

#### ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENTSITATEAREN EBALUAZIOA

Eragin Linguistikoaren ebaluazioa egiteko etxebizitza planari dagokion galdetegia bete da. Ondoren agertzen diren tauletan daude jasota.





## Kultura eta Hizkuntza Politika Saila

	BAI/EZ	+ -	INTENTSITATEA	BALIOA	AZALPENA
<b>1. Komunitatearen kultur eta gizarte bizitzan</b> (harreman sareak aldatzea, harreman ohiturak aldatzea, kultur espresioak aldatzea, elkargune berriak sortzea, kultur agenda aldatzea)					
<b>1.1 Eragina proiektua egiten ari den artean</b>					
1.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.					
	EZ BAI	-	RAXIIA	0 1	Obrak herrigunean egingo dira. Bertan daude herritarrek erabiltzen dituzten zerbitzu nagusiak, tabernak, denda, jatetxea eta farmazia. Baita herriko plaza ere. Beraz, gizarte bizitzan eraginen bat egon liteke, nahiz eta txikia izan, lanorduetatik kanpo beharginak ez diralako herrian eratzten.
1.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da					
<b>1.2. Eragina proiektua egin eta gero.</b>					
1.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.					
	EZ BAI	-	F RTAINA	0 6	HAPOak jasotako etxebizitzak herrigunean egingo dira; dauden espazioak trinkotzeaz beste, ez da aldaketa handirik aurreikusten. Ez da aisialdi gune berririk aurreikusten eta Peñanekua plaza izango da aurrerantzean ere herriko bilgune nagusia. Markina-Xemeinekin dagoen bidegorri-sarea hobetuko den arren harreman sozialetan ez du aldaketa nabarmenik eragingo.
1.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.					
1.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.					
	EZ BAI	-	F RTAINA	0 4	Orokorrean ez dira bigarren etxebizitzak edo oporraldirakoak izango, urte guztian beteta egongo direla aurreikusten da.
1.4. Eragina etengabekoa izango da.					
				<b>11</b>	<b>ERTAINA</b>

2. Tokiko euskararen ezagutzan					
<b>2.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?</b>					
2.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ	-		0	
	BAI	-	BAXUA	1	Herrian egin diren azken obrei erreparatuta, langile geienak atzerritarak dira. Euskararen ezagutzak behera egingo du obra garaian, baina herriko euskaldunen kopuruarekin alderatuta (% 87tik gora) eragina ez da handia izango. Gainera, etxebizitza denak ez dira batera egingo, beharritan arabera eraikiko dira, beraz unean-uneko behagin kopurua ez da handia izango.
2.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.					
<b>2.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?</b>					
2.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ	-		0	
	BAI	-	FRTAINA	6	Euskaldunak ez diren biztanleak etor litezke. HAPOa aurreikusitako hazkundera neurrizkoa eta denbora tarte zabala hartzen duena bada ere, irismen dokumentuan ikusten denez neurririk hartu ezean Euskararen Proiekzio Indizeak nabarmen egin dezake behera (% 7).
2.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.					
2.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ	-		0	
2.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	FRTAINA	4	Eragina etengabekoa da biztante berriak bertan bizitzera datozelako, ez dira bigarren etxebizitzak izango.
				22	<b>ERTAINA</b>

### 3. Tokiko euskararen erabileran

<b>3.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?</b>					
3.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ	-		0	

3.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	RAXIA	1	HAPOn jasotako obrak herrigunean egingo diren heinean, euskararen erabileran izan dezakeen eragina herri guztian nabarituko da: udaletxean, dendan, tabernetan... Behargin gehienak atzerritarrak eta erdaldunak izango direla aurreikusten den arren, ez diote asko eragingo euskararen erabilerari. Izan ere, laneko orduetatik kanpo ia ez dute herritarrekin harremanik.
<b>3.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?</b>					
3.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ	-		0	
3.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	FRTAINA	6	Orain arteko joerari erreparatuta, etxebizitza berrietara eskualdeko herrietatik eta Etxebarria bertatik hainbat biztanle etortea aurreikusten da. Markina-Xemeinekiko bide eta oinezko sarea hobetzeak eragin dezake bertatik Etxebarrira jende gehiago etortzea, baina Markina-Xemeinen datu soziolinguistikoak aztertuta (Euskaraz hitz egiteko gaitasuna % 79, eta erabilera % 78), ez da eragin kaltegarrikerik aurreikusten. Bestalde, baina, azken urteetan herrira etorri den atzerritar kopurua kontuan hartzekoa izan da. Gainera, hauen jatorrian ere sumatu da aldaketa, eta Hego Ameriketatik datozenen kopuruak gora egin du. Hauen hizkuntza gaztelania izanik, euskararen erabilerari modu negatiboan eragiteko arriskua hor egongo da.
3.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ	-		0	
3.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	FRTAINA	4	Bizilagun berriak urte guztian biziko dira Etxebarrian. Gainerako bisitariak ere (oinezko bideetakoak, aisiguneetakoak...) urte guztian etorriko dira.
				<b>33</b>	<b>ERTAINA</b>

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

4. Hizkuntza paisaia					
<b>4.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?</b>					
4.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	BAI	-	BAXIIA	0,5	Obrak egiten diren leku zehatzera mugatuko da eragina. Udalak badu Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana, eta bertan ondo zehatzuta eta araututa daude udalaren hizkuntza politika eta irizpideak. Beraz, hauek egoki betez gero eragina urria izango da. Ez da aurreikusten obretako beharginen eraginez tabernek, dendak... euren paisaia erdaratuko dutenik.
4.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	Herrian jarriko diren seinale edo ohar berriak gutxienez euskaraz jarriko dira.
<b>4.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?</b>					
4.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	
4.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ			0	Behin obrak amaituta ez da gaur eguneko egoerarekiko aldaketarik aurreikusten: seinaleak, errotuloak... euskaraz izango dira. Bestalde, ez da etxabeetan saltoki edo negozio berririk aurreikusten.
4.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	BAI	-	BAXIIA	1	Udalaren hizkuntza irizpideek nahikoa arautzen dute arlo hau, eta salbuzpenak salbuzpen, bete egingo da hauek agindutakoa.
4.4. Eragina etengabekoa izango da.	EZ			0	
				1,5	BAXUA

5. Zerbitzuen/ jardueren/ egitasmoen komunikazioetan					
<b>5.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?</b>					
5.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ			0	

5.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	-	RAXIIA	1	Udalak Erabilera Planean jasotako hizkuntza irizpideak mantenduko ditu, eta salbuespenak salbuespen, ez da aldaketarik egongo. Partikularrek egindako zenbait komunikaziotan (jatetxeak, etxebizitzaren sustatzaileak...) eragina izan dezake, baina urria izango litzateke.
<b>5.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?</b>					
5.2.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	BAI	-	RAXIIA	2	Udalak Erabilera Planean jasotako hizkuntza irizpideak mantenduko ditu, eta salbuespenak salbuespen, ez da aldaketarik egongo. Gauza bera esan daiteke zerbitzuei (tabernak, gimnasioa, liburutegia...) dagokienez ere. Adibide moduan, azken urteotan atzeritik herritar ugari etorri da bizitzera Etxebarrira, asko Hego Ameriketatik, eta komunikazioetako hizkuntzan (euskaraz ia denak) ez da aldaketarik izan.
5.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ	-		0	
<b>5.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.</b>					
5.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	-	RAXIIA	1	
	EZ	-		0	Eraginik izatekotan salbuespenezko kasuetan izango da. Salbuespenezko kasu hauek, ordea, ez dira urteko sasoi konkretu batzuekin loturik egongo (uda garaiko bisitariak, jai bereziak...), noiznahi eman daitezke.
				4	<b>BAXUA</b>

6. Euskarazko zerbitzuen eskaintzan					
<b>6.1 Eragina proiektua egiten ari den artean nabarituko da?</b>					
6.1.1. Eragin mugatua: eragina proiektua/plana garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ	-		0	Gai honi dagozkion hizkuntza irizpideak ondo zehaztuta daude, eta ez da aldaketarik aurreikusten.
6.1.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	EZ	-		0	
<b>6.2. Eragina proiektua egin eta gero ere nabarituko da?</b>					
6.2.1. Eragina mugatua: eragina proiektua garatuko den lekuan soilik nabarituko da.	EZ	-		0	Gai honi dagozkion hizkuntza irizpideak ondo zehaztuta daude, eta ez da aldaketa nabarmenik aurreikusten. Zerbitzu berriak sortzekotan euskara indartzeko baliatuko litzateke, lehentasuna emanez.
6.2.2. Eragin hedatua: eragina inguruko eremuetara ere hedatuko da.	BAI	+	RAXIIA	-3	
6.3. Eragina noizbehinkakoa izango da.	EZ	-		0	
6.4. Eragina etengabekoa izango da.	BAI	+	BAXUA	-2	
				-5	<b>ERAGIN POSITIBOA</b>
<b>Eragin Linguistikoaren Intentsitate Puntuazioa</b>				66,5	<b>MODERATUA</b>

### A.3.2 ERAGIN LINGUISTIKOAREN INTENSITATE-PUNTUAZIOA

66,5 Eragin moderatua.

Eragin Linguistikoaren Intensitate Puntuazioa	66,5	MODERATUA
---	------	-----------

## **A.4 FUNTSEZKO ALDERDIEI BURUZKO AZTERKETA**

179/2019 Dekretuaren arabera, funtsezko alderdiei buruzko azterketa egiterakoan honakoak kontuan hartu behar dira:

- Plan edo proiektu motaren ezaugarriei buruzkoak.
- Planaren edo proiektuaren denbora- eta espazio-dimentsioak.
- Kokapenari buruzkoak.
- Planteatu diren hizkuntza-erabilerari buruzko irizpideen gainekoak.

### **A.4.2 IZAERARI, DIMENTSIONARI ETA LEKUKOTZEARI LOTUTAKO ALDERDIAK**

Erabili den Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aplikatiboan, izaerari, dimentsioari eta lekukotzeari lotutako alderdiak bost jarduera nagusitan banatuta daude: etxebizitza, espazio publiko irekiak, oinarritzko ekipamenduak, jarduera ekonomikoa eta jarduera soziokulturala.

Ondoren aplikatiboaren galdetegien erantzunak jaso dira. Lehengo tauletan izaerarekin, dimentsioarekin eta lekukotzearekin zerikusia dutenak. Eta, ondoren, Hizkuntza-irizpideei eta neurri osagarriei/aringarriei lotutakoak.



## ETXEBIZITZA

### IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
1	Etxebizitzaren batez besteko kostua herritarren beharretara egokitutakoak al dira?	X			Etxebizitza mota ezberdinak eskaintzen dira behar ezberdinei erantzuteko	Euskararen ezagutzatasa horrenbeste ez jaistea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
2	Etxebizitzetatik oinarrizko zerbitzu eta ekipamenduak aise iristeko moduan egotea sustatzen al du?	X				Komunitatearen gizarte bizitza aberasten du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
3	Elkarbizitzarako espazio irekiak aurreikusten al dira etxebizitzetatik gertu?	X				
4	Etxebizitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintzea edo mugatzea aurreikusi al da?	X			Ingurura egokitutako etxebizitza mota eta kopurua eskaintzea aurreikusi da. Horren ondorioz, auzokoen arteko harremana errazten da.	

DIMENTSIOA						
	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
5	Herriaren hazkuntza jasangarria izatea jasotzen al da helburuen artean?	X				Euskararen ezagutzatasa horrenbeste ez jaistea lortzen da, herrikoak bertan geratzeko aukera sustatuta, hazkuntza txikiagoa izango litzatekeelako.
6	Etxebizitzak eskuratzeko lehentasuna herritarrek izateko neurriak hartzea proposatzen al da?			X	Eskaintza batez ere herrikoen beharrianak kontuan hartuta egin da; bide batez, alde egin duten herrikoiei bueltatzeko aukera eman nahi zaie. Baina, ez dago legez horretara behartzeko modurik.	
7	Etxebizitzaren eraikuntza denboran luzatzeko neurriak jasotzen al dira?			X	Lehentasunak jartzen dira eta sekuentziazio bat proposatzen da, baina ez dago hori legez jasotzeko modurik	Jende etorrera asimilatzekeo aukera lortzen da

**LEKUKOTZEA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagoki o	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
8	Etxebizitzak herriko eremu ezberdinetan egitea aurreikusten al da?	X			Etxebizitza berriak herrigunean egingo diren arren, ez dira denak leku berean eraikiko.	Eraginaren intentsitatea baxuagoa izatea lortzen da

## ESPAZIO PUBLIKO IREKIAK

### IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagoki o	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
9	Espazio publiko irekiak erakargarriak, aise iristeko modukoak eta erabiltzeko modukoak bultzatzen al dira?	X				Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta ondorioz, erabilera areagotzen du
10	Oinezko sareak aurreikusi al dira?	X				
11	Espazio publikoen arteko harremana egotea kontuan hartu al da?	X				
12	Espazio publiko irekiei askotariko erabilera ematea aurreikusten al da?	X				Ezaugarri ezberdinetako pertsonak elkarrekin egotea sustatzen du eta gizarte kohesioa eta elkarbizitza hobetzen du, erabilera areagotuz
13	Espazio publikoetan adin nahasketa ematea aurreikusten al da? Haur zein helduek erabili ahal izateko guneak egotea?			X	Ez da berariaz aurreikusten, baina urbanizatzerakoan beti egiten dira umeen jolaserako eta adinekoen ariketetarako guneak.	Gizarte kohesioa sustatzeaz gain, hizkuntzaren zein kulturaren transmisioa ematea sustatzen du

**DIMENTSIOA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagoki o	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
14	<b>Tokiko beharretara neurriratutako espazio publikoak aurreikusi al dira</b>	X				Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilerari modu xumeagoan eragiten dio

**LEKUKOTZEA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagoki o	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
15	<b>Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babesten edo hobetzen al ditu?</b>	X				Bertako ondarea zaintzen du, bertako kultura, hizkuntza, natura, historia aintzat hartuta

16	Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk ditu inguruan, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak?	X			Herri txikia da eta eredu trinkoa proposatzen da, beraz, dena dago gertu.	Gizarte kohesioa eta kultur bizitza areagotzen du eta, ondorioz, erabilera areagotzen du
17	Espazio publiko irekiak eremu askotan dispertsatzea aurreikusten al da?			X		

## OINARRIZKO EKIPAMENDUAK

### IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
18	Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzen al du?	X				Gizarte bizitza eta kultur bizitza sustatzen du. Herritarren integrazioa ahalbidetzen dute.
19	Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izango al da?	X				Udalaren hizkuntza irizpideak ezartzen dira
20	Pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikusten al da?	X			Aparkaleku pribatu bat proposatzen da NEMAK lantegiaren ondoan. Honek, baina, oinezkoen bide publiko bat eta berdegune publiko bat edukiko ditu ondoan. Gainera, udalak aparkalekua erabili ahal izatea proposatuko da, aldi baterako ekintza berezietarako, betiere jabeekin hitzartu ondoren.	Udalarekin hizkuntza irizpideak adosten dira

**DIMENTSIOA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
21	<b>Tokiko beharretara neurriratutako ekipamenduak aurreikusi al dira?</b>	X				Erabiltzaileen hazkuntza jasangarria izaten laguntzen du eta, ondorioz, erabilera zein ezagutza tasari modu xumeagoa eragiten dio

**LEKUKOTZEA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
22	<b>Ekipamenduak beste ekipamendu osagarri batzuetatik gertu daude eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzen dute?</b>	X			Etxebarriak, antzeko udalerriekin alderatuz gero, ekipamendu sare nahiko egokia edukiko du.	Ekipamenduen erabilera sustatzen du eta, ondorioz, gizarte integrazioa eta erabilera areagotzen du



## JARDUERA EKONOMIKOA

### IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
23	Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzen al ditu?			X	Etxebarrian industria ugari dago. Hala ere, planak, jarduera ekonomikoetarako guneen eskaera eta beharra egonez gero, handitze-gune bat aurreikusten du. Legez, baina, ezin ditu tokiko lan-aukerak sustatu.	Bertakoei lanean geratzeko aukera eskaintzen die, eta, ondorioz, langileen euskararen ezagutza eta erabilerari modu xumeagoan eragiten dio
24	Sortuko diren lanpostuak bertakoei betetzeko neurriak ezartzen al ditu helburuen artean?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	
25	Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea al dago?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	
26	Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzen al ditu?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	
27	Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea jasotzen al du?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	

### ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

28	Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzen al du?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	
----	---	--	--	---	---	--

**DIMENTSIOA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
29	Tokiko beharretara neurriratutako lanpostuak sustatuko al dira?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	Tokiko lan beharrei erantzuten die eta aldi berean kanpoko langile kopurua neurriratzeak ezagutza tasari positiboki eragiten dio

**LEKUKOTZEA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
30	Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko gunean izatea aurreikusi al da?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	Eraginaren intentsitatea txikitzen du

## JARDUERA SOZIOKULTURALA

### IZAERA

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
31	Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea jasoko al du helburuen artean?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	Bertako kultura, hizkuntza eta ohiturak sustatzen ditu eta prestigiatzen ditu
32	Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatuko al du?			X	Ez dagokio HAPOaren definizio-maila honi hori zehaztea.	Bertako izaera indartzen, prestigiatzen du
33	Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea izango al du helburuen artean?			X	Planak ezin du legez zuzenean hori bultzatu. Zeharka bai arautzen da.	Bertako kultur erreferenteak indartzen ditu

**DIMENTSIOA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagoki o	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
34	Bisitari kopuru jasangarria jasotzea sustatuko al du?			X	Ez dagokio HAPOaren definizio-maila honi hori zehaztea.	Erabilera eta ezagutza tasari modu xumeagoan eragiten dio

**LEKUKOTZEA**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagoki o	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
35	Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko gunean jasotzea aurreikusten al du?			X	Ez dagokio HAPOaren definizio-maila honi hori zehaztea.	Intentsitate maila baxuagotzen laguntzen du

## HIZKUNTZARI LOTUTAKO FUNTSEZKO ALDERDIAK

### HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

	FUNTSEZKO ALDERDIAK	BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagokio	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
36	Jardueraren/proiektuaren exekuzio faserako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, langileen euskara ezagutzari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilerari lotutakoak...	X			<p>Urbanizazioa gautzatzeko egikaritze proiektuetan jar daitezke eta normalean, hala aurreikusten da lizitazioetan.</p> <p>Hasieratik, HAPOaren komunikazioari dagokionez, udal-irizpideak ezarri eta jarraitu dira, eta HAPOaren behin betiko agiriak bete egingo ditu. Gainerakoak, ez daude HAPOaren esku (kartelen hizkuntza, langileen euskara ezagutza, komunikazio hizkuntza, hizkuntzaren erabilera...); izan ere, HAPOak ez du eskumenik hizkuntza-irizpiderik ezartzeko. Hala ere, arlo guzti hauei dagozkien irizpideak indarrean den Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak jasota ditu, eta bete beharrekoak izango dira.</p>	Egoera soziolinguistikoari kalterik egingo ez diola bermatzen da

### ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

37	<p><b>Jardueraren/proiektua garatu eta gero inguru berri horretarako hizkuntza irizpideak ezartzea aurreikusi al da? hizkuntza paisaiari lotutakoak, toponimiari lotutakoak, komunikazio hizkuntzari lotutakoak, hizkuntzaren erabilera eta ezagutzari lotutakoak...</b></p>	X			<p>Urbanizazioa gautzatzeko egikaritza proiektuetan jar daitezke eta normalean, hala aurreikusten da lizitazioetan.</p> <p>HAPOk Udalak ezarritako toponimia eta hizkuntza-irizpideak aintzat hartzen ditu, eta HAPOaren Behin Betiko Onesperaren dokumentuak horiek betetzen ditu. Hizkuntza-irizpideak ezartzeari dagokionez, HAPOak jasotako izenak edo toponimia erabiltzea proposatu dezake, iradokizun gisa, baina ez du eskumenik hizkuntza-irizpideak ezartzeko.</p> <p>Kasu honetan ere, gai honi lotutako irizpideak indarrean den Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak jasota ditu, eta bete beharrekoak izango dira.</p>	
----	--	---	--	--	--	--

**NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK**

FUNTSEZKO ALDERDIAK		BALORAZIOA				
		Bai	Ez	Ez dagoki o	Azalpena	Eraginak hizkuntzan
38	Kaltea murrizteko neurri osagarri edo aringarriak aurreikusi al dira? Etorri berriak euskalduntzeari begirakoak, etorri berrien integrazioari begirakoak, euskara planak garatzeari begirakoak, ziurtagiriak eskaintzea, itzulpen zerbitzuak, irizpideak betetzen ez direnerako isunak...		X		HAPOaren definizio-maila honetan ez da halakorik jaso. HAPOren eduki sustantiboa Hirigintza eta Lurzoruari buruzko 2/2006 Legearen 61. artikuluan araututa dago. HAPOa hizkuntza-gaietan eskumenik ez daukan agiri arautzaile bat da.	Proiektuaren/jardueraren eraginez sortutako kaltea murrizten da

## A.5 KONPENTSAZIO-NEURRIAK

Kontuan izanik HAPO plangintza-tresna bat dela, horren helburua erabilerak antolatu eta beren gauzatze formala arautzea dela, eta ez duela eskumenik hizkuntzaren arloan, ezar daitezkeen neurri konpentsatzaileak hauek dira:

- Adin guztietako jendearentzako espazioak sortzea (adinekoak eta haurrak leku berean egoteko aukera). Adin desberdinetako haurrentzako jolastokiak ezartzea. Hori guztia hirigintza inklusiboko irizpideak dituzten ordenantzen bidez arautu daiteke.
- Gazteentzako egokiak diren espazioak edota hiri-inguruneak diseinatzen ditu, haiek bermatuko baitute euskararen erabilera.
- Espazio publikoez gain, zuzkiduren erabilera-aniztasuna sustatzea, adin desberdinetako pertsonak erabili ditzaten. Hala, belaunaldien artean erabilera eta ezagutza hobetzen baita. Horretarako funtsezkoa da erabilerak egoki arautzea.
- Erabilerak arautzea (erabilera onartuak, debekatuak, bateragarriak, etab.), bertako biztanleek behar edo eskatzen dituzten zerbitzuak ezarri ahal izateko. Bizitza herrian egin dezaten, eta logune bihurtu ez dadin.
- Udalerriko gune desberdinen arteko lotura hobetu eta lehenestea, eta, ondorioz, bertako harremanak edota kohesioa. Besteak beste, ordezeko mugikortasuna hobetuz, herriko bilbea trinkotuz, etab.

Ordea, hizkuntzari dagokionez, bere izaera eta xedeagatik HAPOak hainbat neurri eta irizpide jaso ezin dituen arren, hauek guztiak jasota eta araututa daude Etxebarriko Udalak onartuta eta indarrean duen 2018-2022 urteetarako Euskararen Erabilera Normalitzatzeko Planean. Irizpide hauek Udalaren hizkuntza politika zuzentzen duten heinean, ezinbestean bete beharrekoak dira.



## A.6 NEURRI ZUZENTZAILEAK

Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren aplikatiboan neurri zuzentzaileen karta-eredu bat dago eskuragarri.

Bertan proposatzen diren neurriak positiboak eta sustapenera bideratutakoak dira. Hots, neurri baztergarriak baino, berdintasun eta proportzionaltasun printzipioetan oinarritutako neurriak lantzen egin behar da ahalegina.

Nolanahi ere, neurri zuzentzaileen karta hori eredu bat da, eta tokian tokiko errealitateari erantzun doitua emateko bertako errealitatera egokitu behar da, baita ebaluatzen den planera ere.

Hala, kartan jasotako neurri zuzentzaile batzuk, interesgarriak izan arren, ezin dira HAPOTik ezarri, HAPOaren eskumenekoak ez diren gaiak direlako. Hala eta guztiz ere, komenigarria izan daiteke beste tresna edo ekimenen bidez horiek ezartzea.

PROIEKTUAREN/JARDUERAREN IZAERARI LOTUTAKOAK	PROIEKTUAREN/JARDUERAREN DIMENTSIOARI LOTUTAKOAK	PROIEKTUAREN/JARDUERAREN LEKUKOTZEARI LOTUTAKOAK	HIZKUNTZA IRIZPIDEEI LOTUTAKOAK	NEURRI OSAGARRIAK/ARINGARRIAK
Proiektuaren izaera eremu horretarako garapen sozioekonomiko eta soziokulturalera moldatzea. Adibidez, familia bakarreko edo dorre itxurako etxebizitzak beharrea, ingurura egokitutakoak egitea.	Proiektuaren tamaina murriztea (Etxebizitzen kasuan, auzo/herri/eskualdearen beharretara neurritzea hazkundera.)	Ezagutzan eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea	Etxebizitza eskuratzeko bertakoei lehentasuna ematea	Herritarren ahalduntze linguistikoa eta formazioa landu.
Biztanle berrien integratziorako egiturazko neurriak: auzo/etxebizitzen antolaketa eta egitura biztanle berrien integratziorako moldatu (bertako herritarrekin harremanak garatzeko espazioak, gune komunitarioak, etxebizitzaren sarbidea oinezkoen espazioetatik, ...)	Proiektuaren iraupena denbora luzatzea (etxebizitza guztiak aldi berean egin beharrea, fase desberdinetan egitea)	Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispersatzea	Herriko langileei lehentasuna ematea	Aisialdiko (kirol eta kultur) eskaintza garatzea.

Ekimenak hezkuntzarekin, osasunarekin, gizarte-zerbitzuekin, kirolarekin edo kulturarekin lotutako oinarrizko ekipamenduen erabilera sustatzea	Proiektuaren tamaina murriztea	Erabileran eragin kaltegarri txikiagoa izan dezan lekualdatzea	Proiektuaren iragarkiak tokiko eta euskarazko hedabideetan egitea lehenetsi	Etorri berrientzat, integratuzko neurriak (hezkuntza,...) eta planak garatzea.
Kultura, kirola, hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen eraikinen kudeaketa publikoa izatea	Proiektuaren iraupena denboran luzatzea.	Proiektu guztia leku berean garatu ordez, eremu desberdinetan dispersatzea	Kontratatuak langileak euskaldunak izatea	Doako euskalduntzea bermatu.
Zerbitzuaren kudeaketa pribatua izanez gero udalarekin hitzarmenak egitea aurreikustea	Tokiko beharretara neurriratuak aurreikusi ekipamenduak	Ekipamenduak beste osagarri batzuetatik gertu egotea eta denen koordinazioa, eraginkortasuna eta gizarte-kohesioa ahalbidetzen duen sarea osatzea proposatu	Hizkuntza erabilerarako irizpideak finkatzea, euskarari lehentasuna emanaz.	Euskalduntzeko konpromisoa bermatu
Tokiko beharretara neurriratuak espazio publikoak aurreikustea	Ekimenak garrantzi naturala, historikoa edota kulturala duten lekuak babestea edo hobetzea	Enpresa berriak eraikiko badira euskararen hauskortasun txikiko guneetara bideratu	Euskara-planak edo ziurtagiria duten hornitzaileak lehenetsi	Etorri berrien euskalduntzea eta beharrezko errefortzua bermatu

<p>Ekimenak tokiko lan-aukerak sustatzea</p>	<p>Espazio publiko irekiak beste instalazio batzuk inguruan izatea, adibidez, dendak, liburutegia, kultur etxea, ikastetxeak eta gizarte kohesioa sustatzeko komunitate-zentroak</p>	<p>Jarduerak bisitariak hauskortasun txikiko guneetan jasotzea aurreikustea</p>	<p>Lehen hitzetik euskaraz egitea.</p>	<p>Harrera-planak</p>
<p>Sortuko diren lanpostuak bertakoek betetzeko neurriak ezartzea helburuen artean</p>	<p>Espazio publiko irekiak eremu askotan dispersatzea aurreikustea</p>		<p>Pasaia linguistikorako irizpideak finkatu, euskarari lehentasuna emanez eta erdarak beharrezkoa den kasuetan soilik erabiliz</p>	<p>Mintzapraktika programa garatua</p>

Helburuen artean askotariko enpleguak lortzeko aukerak sustatzea	Tokiko neurriraturako beharretara lanpostuak sustatzea		Bertako toponimia erabili	Ziurtagiria eskaini edo euskara-planak garatu
Herritar-talde guztientzako lan aukerak bultzatzea	Bisitari kopuru jasangarria sustatzea: turismoa hizkuntz gutxietako herrialdeetan sustatzea...		Komunikazio irizpideak finkatu, euskarari lehentasuna emanaz	Sentsibilizazio /motibazio kanpainak
Helburuen artean, tokiko enpleguarekin lotutako prestakuntza sustatzea			Euskarazko eskaintza edo eskaintza elebiduna bermatu	Itzulpen zerbitzuak eskaini
Ekonomia aniztasun handiagoa egotea bultzatzea				Irizpideak betetzen ez direnerako isunak
Bertako kultura, hizkuntza, ohiturak sustatzea helburuen artean				
Erabiliko diren irudi leloak bertako ezaugarriei lotutakoak izatea sustatzea				
Ekimenak bertako kultur sorkuntza sustatzea helburuen artean				